

Erhi potots jauna

- Erhie txontxongilo itxura eman, gero antzezteko.
- Etxe barneko ingurugiroa sor. Kartoizko etxea egin edo kanpoko jostalekuan etxola eraik. Ondotik beste ikasgelei erakuts.



Erhiekin mugimendu zehatzen egiten treba

esku bateko erhi guziak tolestu eta, aldian-aldi, bat atera eta izenda.

nor-nork indikatiboan.
Agintera.

- Erhi pototsa atera ezazue/sar ezazue.
- Erhi nagia atera dut.

Itzal antzerkia

Haur bakoitzak pertsonaia edo animalia bat mimatzen du erhiak mugituz eta antzerki bat antolatzen dute denek elgarrekin, solasaldiak gehituz.

nor-nork indikatiboan.

- Nik otsoarena egin dut.
- Guk liliarena egin dugu.

Beste antzerki bat

Joko moldean, haur batek besteen etxeak bisitatzen ditu...

Adib. :

- Kas, kas, kas, Patxi hor zirea ?
- Xo lo naiz... !

Horrela zenbait aldiz. Eta azkenean :

- Kas, kas, kas, Gaxuxa hor zirea ?
- Kasu ! Harrapatuko zaitut !

nor-nork indikatiboan.

Aditzaren aspektua : -TZEN/-KO.

- Nork harrapatu zaitu ?
- Xantik harrapatu nau.
- Harrapatuko zaitut.